

DESBERDINTASUN SOZIOEKONOMIKOAK GAURKO MUNDU ANTOLAKETAN



GIZARTE ZIENTZIAK, GEOGRAFIA ETA HISTORIA
DBHko 4. maila

Arrate Uranga
2012ko urtarrilean berrikusia

LAN-ESKEMA**Irakasgaiak: Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia****Gaia: Desberdintasun sozioekonomikoak gaurko mundu antolaketan****Maila: DBHko 4.maila****Saio kopurua: 9-10****Proposamenaren testuingurua:**

Sekuentzia didaktiko labur hau gaurko munduan dauden desberdintasun sozioekonomikoak ulertzeko proposamena da.

Bigarren Mundu Gerraren ondorioak abiapuntu gisa hartuta, marko politiko eta ekonomiko berriaren sorrera gauzatu zen. Hori dela eta, gizabanakoen eta gizarte osoaren elkartasunaren beharra azpimarratu nahi dugu.

Landuko diren oinarrizko gaitasunak:**Ikasten ikasteko gaitasuna**

2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 12., 14., 15., 16., 17. eta 18. jarduerak

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna

2., 4., 6., 7., 10., 17. eta 18. jarduerak

Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna

12., 13. eta 15. jarduerak

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna

1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8., 9., 10., 11., 12., 13., 14., 15., 16., 17. eta 18. jarduerak

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

1., 2., 3., 4., 5., 6., 8., 9., 11., 12., 13., 14., 16., 17. eta 18. jarduerak

Helburu didaktikoak:

1. Gaur egungo gizartearen antolaketa ekonomikoa eta politikoa ulertzea.
2. Jarrera demokratikoan, baketsuan eta elkarbizitza positiboan eraikitako gizartearen beharra ulertzea.
3. Giza eskubideak balioestea, eta bidegabekeria, diskriminazio, menderatze eta genozidio guztiak gaitzestea.
4. Gizartearekin konpromisoa sustatzea.

Edukiak:

- Bigarren Mundu Gerraren zergatiak eta ondorioak
- Gaurko munduaren antolamendu politikoa eta ekonomikoa
- NBERen garrantzia: harreman-eredu berria; herritartasun globala
Globalizazioa
- Zenbait arrazoik eragindako gatazkak

- Bakea lortzeko arazoak eta aukerak
- Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala

Jardueren sekuentzia:

- | | |
|----------------------|---|
| Planifikatzea | <ul style="list-style-type: none">– Abiapuntua: gaiarekiko sentsibilizazioa eta motibazioa (1., 2. eta 3. jarduerak)– Helburua: norberaren konpromisoa; gure elkartasuna eta konpromisoa (12., 16., 17. eta 18. jarduerak)– Lana garatzea: NBEren garrantzia egungo antolaketa sozioekonomikoan (3. jarduera) |
| Gauzatzea | <ul style="list-style-type: none">– Jarrera demokratikoaren garrantzia (5., 6. eta 7. jarduerak)– Taldeko lana eta banakako lana– Arazoa egoki ulertzeko beharrezkoak diren baliabideen jabetza |
| Erabiltzea | <ul style="list-style-type: none">– Lortutako informazioa eta baliabideak testuinguru desberdinetan aplikatzea– 1., 6. eta 7. jarduerak |

Ebaluazioa:

Adierazleak

- Ea informazio zehatza jasotzen duen aztertutako arazoaren inguruan.
- Ea ezagutzen duen NBEren eraketa-prozesua.
- Ea balioesten duen nazioarteko erakundeen zeregin historikoa eta gaur egungoa.
- Ea aintzat hartzen duen eskubide eta betebeharren arteko oreka.
- Ea konturatzen den jarrera demokratikoaren beharraz.
- Ea aztertzen dituen egungo nazioarteko arazo batzuk.
- Ea sentiberatasunik duen bidezkoak ez diren egoera sozialen aurrean, eta ea irudikatzen dituen horiei aurre egiteko moduak.
- Ea parte hartu eta laguntzen duen bere inguruan sortzen diren arazoetan.
- Ea parte hartzen duen taldekako lanak antolatzen eta garatzen; ekintzailea den eta besteek egiten dizkioten ekarpenak onartzen dituen.
- Ea errespetatzen dituen euren artean ezarritako arauak.
- Ea arduratsua den.

Tresnak:

a) Jardueren sekuentzian erabiltzekoak

- Koebaluazioa (4. eta 7. jarduerak)
- Oinarri orientatzaileak (4. jarduera)

b) Irakasleak erabil ditzakeen bestelako baliabideak

- Idatzizko probak
- Ikasleen behaketa

1. JARDUERA

Irakurri banaka lerrook eta hausnartu

Injustziak, desoreka politiko, sozial edo ekonomikoak ez dira ezerezetik sortzen. Gertaera horiek guztiek askotariko zergatiak dituzte. Gure munduaren antolaketa ulertzeko eta sortzen diren desorekei aurre egiteko, beharrezkoa da datu historiko garrantzitsuak gogoratzea. Hona hemen ezinbesteko zehaztasunak.

Bigarren Mundu Gerrak krisi baten goreneko unea adierazi zuen, Lehen Mundu Gerraren amaieratik abiatutako krisiarena, alegia.



Bigarren Mundu Gerraren amaieran, gizakiak inoiz ikusi duen izugarrikeria handienetako bi ikusi zituen:

- nazien sarraskitze-esparruak
- Ameriketako Estatu Batuek jaurtitako bonba atomikoak



Nazien sarraskiak



“Hau da gure oihua, hau gure eskaria: bakea munduan”

Hiroshimako bonba atomikoaren biktima Sadako Sasakiren omenez (1943-1955) eraikitako estatuan dagoen inskripzioa, Hiroshimako Bakearen Parkean.

Gerraren zergatiak eta ondorioak irakurri ondoren, ziur asko, gogoeta eta galdera asko sortu zaizkizue. Adibidez:

Krisiaren ondorioz sortzen dira gatazkak? Zergatik?

Krisi hitzak zer adierazi nahi du?

Gatazka batean, ondorio ekonomikoak dira garrantzitsuenak?

Izan liteke Hirugarren Mundu Gerrarik?

Zein erantzukizun mota dute gobernuko erakundeek gatazka baten aurrean?

Zein da politikoen ardura?

Zein da pertsona bakoitzaren ardura eta erantzukizuna?

2. JARDUERA

Eztabaidatu klasean plazaratu ditugun arazoak, eta jaso, idatziz, ekarpen guztiak.



3. JARDUERA

Irakurri arretaz taula bakoitzeko informazioa

Nazio Batuen Erakundea

Nazioen Elkarteak ez zen izan eraginkorra bakea zaintzeko, eta herrialde garaileek beste foro bat sortzea erabaki zuten: **Nazio Batuen Erakundea**. Hona hemen erakundearen helburu nagusiak:

- Nazioarteko **bakeari** eta segurtasunari eustea, gatazkei **elkarrizketa** bidezko irtenbideak ematen ahaleginduz.
- **Giza Eskubideak sustatzea** eta babestea.
- Erakundeko kideen arteko **lankidetzak** **baketsua** **sustatzea** gai ekonomiko, sozial eta kulturaletan.

1945eko ekainean, 50 herrialde baino gehiagoko ordezkari-bilera bat egin zen: **San Frantziskoko Konferentzia**. Bilera horretan, NBEko fundazio-gutuna idatzi zuten, eta bertan erakundearen hiru helburuak zehaztu zituzten.

Nazio Batuen Gutuna

1. Artikulua

Hona hemen Nazio Batuen **helburuak**:

1. Nazioarteko bakea eta segurtasuna gordetzea, eta, (...) baliabide baketsuak erabiliz, (...) bakea urra dezaketen nazioarteko eztabaidak edo egoera gorabeheratsuak bideratzea edo konpontzea.
2. Herrialdeen arteko kidetasun-harremanak bultzatzea –eskubideen berdintasun-printzipioan eta herrien determinazio librean oinarrituta–, eta mundu osoko bakea sendotzeko beste neurri batzuk hartzea.
3. Nazioarteko lankidetzak lortzea, giza, ekonomia-, gizarte- eta kultura-arazoak konpontzeko; baita guztien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzeko eta garatzeko ere, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-bereizketarik egin gabe.
4. (...)

2. Artikulua

1. Lehen artikuluan jasotako helburuak betetzeko, Nazio Batuen Erakundeak eta haren kideek printzipio horien arabera jardungo dute.
2. Nazio Batuen Erakundearen oinarria kide guztien berdintasun subiranoaren printzipioa da.

4. JARDUERA

Eztabaida

a) Eztabaida nola prestatu

Nazio Batuen Erakundearen hiru helburuak kontuan izanik, klasea bi taldetan banatuko dugu. Talde batek NBERen helburuak defendatuko ditu; besteak, berriz, kontrako jarrera hartuko du.

Arinago lan egiteko, talde bakoitza talde txikiagotan banatuko dugu.

NBERen helburuak:

- bakea eta elkarrizketa
- Giza Eskubideak
- lankidetzak baketsua

Ohar lagungarriak:

Gaira hurbiltzea

- Argitu bloke tematiko bakoitzaren hitzak: bakea, elkarrizketa, Giza Eskubideak eta lankidetzak.
- Bilatu informazioa honako galdera hauek kontuan izanik:
 - Bakea, elkarrizketa eta lankidetzak gure gizarteak sustatzen dituen balioak dira; baina historikoki beti izanda horrela?
 - Zein sorrera historiko dute Giza Eskubideak?
 - Idatzi fitxetan landutako eta jasotako guztia.

Plana bideratzea

- Antolatu eztabaidaren egitura: aukeratu bizpahiru ideia nagusi –baita bigarren mailako beste hainbat ere, nagusi horiek indartzeko–, eta erabaki noiz azalduko dituzuen ideiak.
- Idatzi zuen taldeko jarreraren aurkezpena orri batean.
- Elkartu berriro bi taldetan, bateratu egindakoa, eta aukeratu ordezkariak. Orain haiek dute argudioak defendatzeko ardura. Aukeratu, halaber, moderatzaile bat eta epaimahairako lau kide. Gainerakoak entzuleak izango dira.

b) Eztabaida

- Aurkezpena. Talde bakoitzeko kide batek bere jarrera azalduko du.
- Erantzunak eta erantzunen erantzunak. Moderatzaileak bi taldeetako kideei hitza emango die, txandaka,.
- Eztabaida bera. Talde bakoitzak lehen azalduzkoa laburtuko du, eta, era berean, justifikatuko du lehenengo jarrerari eusten dion ala, aitzitik, iritziz aldatu den.
- Amaiera. Talde bakoitzeko partaide batek ondorioak azalduko ditu.

c) Eztabaida nola ebaluatu

Eztabaidaren prozesua eta gauzatzea baloratzeko epaimahaiak honako atalok kalifikatu behar ditu, bertan adierazitako irizpideak kontuan hartuta. Kalifikazioa 1etik 3ra bitartekoa izango da: 1, ez egokia; 2, egokia; eta 3, oso egokia.

	NBERen helburuen alde										NBERen helburuen kontra									
	1, ezegokia; 2, egokia; 3, oso egokia										1, ezegokia; 2, egokia; 3, oso egokia									
Aurkezpena <i>Ideiak garrantzitsuak izan dira, eta koherentziaz eta argi azaldu dituzte.</i>																				
Erantzunak eta erantzunen erantzunak <i>Entzuteko gaitasuna eta besteak konbentzitzek o moduan erantzuteko trebetasuna</i>																				
Eztabaida eta ondorioak <i>Kritikoak izateko eta laburtzeko gaitasuna</i>																				
Estiloa <i>Ziurtasun maila eta hiztegi-joritasuna</i>																				
Ikerketa <i>Informazio kantitatea eta kalitatea</i>																				
Jarrera <i>Ikasleek elkarri erakutsitako begirunea baloratu; baita ikasleak eurak ere.</i>	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	1	1	1	1	1	1	1	1	2	2

5. JARDUERA

Irakurri arretaz

Demokraziaren oinarriak

NBEko gutuna arretaz irakurriz gero, garrantzitsua da azpimarratzea honako ideiak:

- “(...) **baliabide baketsuak erabiliz...**”
- “(...) **bakea urra dezaketen nazioarteko eztabaidak edo egoerak bideratzea edo konpontzea.**”
- “(...) **kidetasun-harremanak bultzatzea...**”
- “(...) **eskubideen berdintasun-printzipioa...**”
- “(...) **bakea sendotzeko...**”
- “**Nazioarteko lankidetzaren (...)** arazoak konpontzeko...”
- “(...) **guztien giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeko eta garatzeko...**”

Hona hemen jarrera demokratikoaren hainbat oinarritzko ezaugarri:

- Herritarren arteko gatazkak konpontzeko metodotzat indarkeria baztertzea.
- Ezberdinak direnak eta ezberdin pentsatzen dutenak toleratzea.
- Akordioak negoziatzeko gogoia izatea, elkarren kontra daudenen arteko akordio-puntuak bilatzea eta interes orokorrak interes partikularrei gailentzea

6. JARDUERA

Alderatu aurreko taula biak, eta erlazionatu bateko eta besteko ideiak

Batu launaka, eta egin sintesi-lan bat, NBEko gutuna eta jarrera demokratikoaren printzipioak elkartuz.

Jarrera demokratikoa	NBEko gutuna: ideia nabarmenenak
- Herritarren arteko gatazkak konpontzeko metodotzat indarkeria baztertzea.	
- Ezberdinak direnak eta ezberdin pentsatzen dutenak toleratzea.	
- Akordioak negoziatzeko gogoia izatea, elkarren kontra daudenen arteko akordio-puntuak bilatzea eta interes orokorrak interes partikularrei gailentzea.	

7. JARDUERA

Idazlana. Idazlan honetan sistema demokratikoan eta demokrazian funtzionatzeko behar diren jarrera eta arauen inguruan idatziko duzu. Bertan, nahi duzun materiala eta adibideak erabil ditzakezu. Demokraziaren inguruan daukazun jarrera argi utzi behar duzu; horretarako, erabili egoki argumentuak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zazpigarren jardueraren ebaluazioa. Adostu zuzentzeko irizpideak, eta zuzendu elkarri.

	Egoki / Desegoki	Oharrak
Idazlana egoki / desegoki egituratuta dago; hau da, errespetatzen ditu egituraren hiru atalak: sarrera, garapena eta ondorioa.		
Sarreran egoki / desegoki planteatzen da azaldu nahi dena.		
Adibideak egoki / desegoki erabilia daude.		
Azalpena egoki / desegoki ordenatu du.		
egoki / desegoki sakondu du gaia.		
Lana egoki / desegoki burutu du.		

8. JARDUERA

Irakurri arretaz Giza Eskubideen historia eta bilakaera laburra.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Erakundearen (NBE) Batzar Nagusiak *Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* onetsi zuen. Deklarazio hori NBEko estatuek norbanakoei aitortzen dizkieten oinarrizko bermeen adierazpena da.

Giza Eskubideak historian zehar apurka-apurka onartuz doaz, moralarekin loturiko ikaskuntza-prozesu motel baten bidez. Prozesu hori ez da oraindik amaitu, eta, orain arte, hiru fase handi bereiz daitezke: Giza Eskubideen hiru belaunaldiak.

Giza Eskubideen belaunaldiak	Balioen gida	Estatu-eredua
Lehena: eskubide zibilak eta politikoak	Askatasuna	Estatu liberala edota zuzenbidezko estatua
Bigarrena: eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak	Berdintasuna	Zuzenbidezko estatu soziala
Hirugarrena: bakea, ingurumen garbia eta garapenerako eskubidea	Elkartasuna	Estatu solidarioak

9. JARDUERA

Irakurri arretaz

Bakea, oreka ekologikoa eta garapen iraunkorra

Hirugarren belaunaldiko Giza Eskubideei dagokienez, gogor salatu behar da herrialde aberatsetako gobernuek ez dutela oraindik benetako konpromisoa hartu herrialde pobreetako gerren kausen aurka borrokatzeko, ezta ingurumenaren kutsaduraren aurka eta azpigarapenaren kausen aurka borrokatzeko ere. Enpresa handiek kutsatzen jarraitzen dute, eta nazioarteko arma-trafikoak herrialde pobreetako gatazka belikoak hornitzen ditu. Gainera, azpigarapenaren arazoak bere horretan dirau, eta kanpo-zorrak arazoa larriagotu besterik ez du egiten.

Hala eta guztiz ere, NBEren zenbait agentzia –eta gizarte-erakunde asko– ahalegin handia egiten ari dira naturaren alde (ADENA, Greenpeace, etab.); beste batzuek gerra-tokietatik ihesi doazen errefuxiatuei larrialdiko laguntza humanitarioa ematen diete (ACNUR, Mugarik Gabeko Medikuak, Munduko Medikuak, etab.); eta beste talde batek kanpo-zorra ezeztatzeko eta garapen iraunkorra errazteko lanean dihardu bai ipar hemisferioan, bai hego hemisferioan.

10. JARDUERA

Jarduera honetan Giza Eskubideen hirugarren belaunaldia landuko dugu. Erantzun, taldeka, ondorengo galderei:

1. Zeintzuk dira hirugarren belaunaldiaren kezka edo arazo nagusienak?

.....

.....

.....

2. Zein da hirugarren belaunaldiko balioen gida? Zertan datza gida hori?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

3. Noiz esango genuke estatu bat solidario dela?

.....

.....

.....

.....

4. 9. jarduerako testuak dio "(...) herrialde aberatsetako gobernuek ez dutela oraindik benetako konpromisoa hartu herrialde pobreetako gerren kausen aurka borrokatzeko, ezta ingurumenaren kutsaduraren aurka eta azpigarapenaren kausen aurka borrokatzeko ere". Zergatik?

.....

.....

.....

.....

5. Azpigaraturik dauden herrialdeen egoera gehiago larritzen da kanpo-zorraren arazoarekin. Zergatik?

.....

.....

.....

.....

11. JARDUERA

Milurteko garapenerako helburuak

2000. urteko irailean egin zuten milurteko goi-bilera hainbat herrialdek. Nazio Batuen Erakundeko herrialdekideek zortzi helburu zehaztu zituzten, 2015. urterako munduko azpigarapenaren kausak eta egoerak murriz zitezen. Helburu horiei Milurteko Garapen Helburuak deritze.

Zenbait herrialde egoki doaz aurrera, eta 2015. urterako zehaztutako helburuak beteko dituztela uste da. Hala ere, beste herrialde batzuen bilakaerari erreparatuz gero (Afrikan eta Sahara hegoaldean daude gehienak), garbi ikus daiteke ezinezkoa dela epe horretarako markatutako helburuak betetzea.

12. JARDUERA

Sartu webgune honetan: [www. Undp.org/spanish/mdgsp/ODM-progresos.html](http://www.Undp.org/spanish/mdgsp/ODM-progresos.html). Egin klik helburu bakoitzaren gainean. Adierazi, taula baten bidez, zein herrialdetan aurreratu den gehien, eta zein dauden 2015erako ezarritako helburuak erdiestetik urrunen.

Helburuak	Gehien aurreratu dutenak	Urrunen daudenak
1. Helburua		
2. Helburua		
3. Helburua		
4. Helburua		
5. Helburua		
6. Helburua		
7. Helburua		
8. Helburua		


13. JARDUERA

Webgune honetan joko erraza duzu, Milurteko Garapen Helburuei buruz dakizuna ebaluatzeko.

[www. enredate.org/juegos](http://www.enredate.org/juegos)

14. JARDUERA

<p>Sufrimendua neurtzen</p> <p>Sufrimenduaren indizea (edo ongizatearena) neurtzeko hainbat aldagai hartzen dira kontuan: hezkuntza, etxebizitza, sendagile kopurua biztanleko, edateko ura, bizi-itxaropena, per capita produktu gordina, landunen tasa, adingabekoen lana, komunikazio-teknologiak, eskubide zibilak eta kanpo-zorra. Indize horren arabera, lau talde ezartzen dira:</p>	
<p>1. Giza sufrimendu txikia</p> <p>Ipar Ameriketako eta Mendebaldeko Europako herrialdeak hartzen ditu barne, baita Australia, Zelanda Berria eta Japonia ere. Guztira, 797 miloi biztanle.</p>	<p>2. Tarteko giza sufrimendua</p> <p>Ekialdeko Europako eta SESBko herrialdeak hartzen ditu barne. Amerikan: Argentina, Txile, Uruguai, Kuba eta Costa Rica; Asian: Hego Korea, Saudi Arabia eta Arabiar Emirerri Batuak. Guztira, 636 miloi biztanle.</p>
<p>3. Giza sufrimendu handia</p> <p>Erdialdeko eta Hegoamerikako, eta Ipar eta Hego Afrikako herrialde gehienak hartzen ditu barne, baita beste herrialde hauek ere: Turkia, Siria, India, Bangladesh, Txina, Taiwan eta Filipinak. Guztira, 56 herrialde dira, eta 3.500 miloi biztanle; hau da, munduko biztanleriaren % 50.</p>	<p>4. Izugarritzko giza sufrimendua</p> <p>Afrikan hainbat herrialde hartzen ditu barne: Mozambike, Somalia, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Ginea, Etiopia, Sudan, Uganda, Sierra Leona eta Txad, besteak beste; eta Asian: Afganistan, Laos, Birmania, Kanputxea eta Vietnam.</p>



15. JARDUERA

Giza Sufrimendua Neurtzeko hainbat aldagai erabiltzen dira. Ondoren, gela bi taldetan banatuko dugu: talde batek “adingabekoen lana” hartuko du; eta besteak “kanpo-zorra”. Talde bakoitzak aldagai bat ikertuko du, eta beste ikaskideen aurrean azalpenak emango ditu.

Hona hemen “kanpo-zorra” lantzeko webgune interesgarria:

www.elmundo.es/elmundo/2005/graficos/ene/s3/deuda/deuda.html

Bertan sartzerakoan egin klik “Comenzar” botoian. Egin klik “Los más pobres” laukitxoan, eta aztertu herrialde pobreenek BPGren ehuneko zenbat erabiltzen duten zorra ordaintzeko, eta ehuneko zenbat, oinarrizko gizarte-zerbitzuetarako.

Egin klik “Historia” laukitxoan, eta azaldu zer gertaerak eragin duten herrialde horien zor handi hori.

Webgune hau interesgarria izan daiteke Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE) meatzeetan lan egiten duten haurrei buruz egin duen ikerketa ikusteko:

www.ilo.org/iloroot/docstore/ipecc/prod/spa/2005_wdacl_digging_es.pdf.

Egin klik “Temas” laukitxoan, eta bilatu bertan informazioa.

16. JARDUERA

Gure elkartasuna, gure konpromisoa

	<p>Zorte kontua da.</p> <p>John Rawls filosofoaren esanetan, oinarrizko askatasun eta eskubide batzuk bermatzean datza gizarte-justizia, zortirik okerrena izan dutenek (egoerarik kaskarrean daudenek) bizi maila duina ziurtatua izan dezaten. Eta horrek justizia-arrazoiengatik izan behar du horrela, inor ez baitago egoera horretan egoteko arriskutik kanpo: denok gaude <i>loteria natural eta sozial</i> baten mende.</p>
--	---

Aurreko informazioa irakurri ondoren, hausnartu bertan islatzen den ideia: bizitza zorte-kontua al da?

.....

.....

.....

17. JARDUERA

Orain hamarkada batzuk, NBEren txosten batek herrialde garatuenei eskatu zien euren aberastasunaren % 7 Hirugarren Munduko herrialdeen garapenerako emateko. Nahiz eta NBEk gomendatu eta zenbait hiritar-platafromak presionatu, gaur egun Norvegia da partaidetza kuota hori gainditzen duen herrialde bakarra:

Norvegia	1,14	Portugal	0,31
Frantzia	0,62	Italia	0,30
Kanada	0,45	Espainia	0,23
Belgika	0,42	AEB	0,20
Alemania	0,41	Irlanda	0,19
Suitza	0,36		

Datu horiek irakurri ondoren, zer esango zenuke praktikan jartzen den elkartasunari buruz?

Gobernuz kanpoko erakundeak arazo ugariz arduratzen dira gaur egun: batzuk Giza Eskubideen babes orokorraz; beste batzuk, aitzitik, espezializatuagoak daude, eta arazo jakin batzuez arduratzen dira.

Eta zertaz arduratzen naiz ni? Zein konpromiso mota hartzen dut hobekuntzak lortzeko?

18. JARDUERA

Buka dezagun lana bizi garen lekutik geure komunitateari eskaerak eginez. Idatzi pankartetan zer behar den, zuen ustez, mundu hobea lortzeko.

